www.asajer.org
25 aniversario urteurrena
1989-2014

32

Portaerazko adikzioak eta legezkotasuna

2016
Abendua

jokuz kanpo

ASOCIACIÓN ALAVESA DE JUGADORES EN REHABILITACIÓN
ERREHABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Portaerazko adikzioak eta legezkotasuna

zk. 32

aurkibidea

1 Artikulua
"Lege alderdiak eta Portaerazko Adikzioak"

2 Jokoaren Araudi Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan

3 Elkarrizketa
"Monica Fernandez Borobio - Beroa Babes Fundazioa"

4 Arazoa duen pertsona baten testigantza
"Lekukotzak - Adikzioa eta Delitua"

Argitaratzailea: ASAJER. Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkartea

Laguntzaileak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Arabako Foru Aldundia) eta Gizarte Politikoen eta Osasun Publikoaren Saila- Publikoaren Zerbitzua (Vitoria-Gasteizko Udala).

Argazkiak: Asajer

Diseinua: ERDU

maketazioa: KOMUNIKA DIGITAL 2.0

Itzulpenak: Higan Itzulpen Zerbitzuak

Inprimatzailea: Vicuña Grafikoak

Lege-Gordailua: VI - 356 / 07

www.asajer.org
25 aniversario urteurrena
1989-2014

artículo a

Lege alderdiak eta portaerazko adikzioak

Buletin honetan Legezkotasunarekin lotutako zenbait alderdi jorratu nahi ditugu, gure ustez adikzioak lantzean garrantzi asko dutenak, batez ere, PORTAERAZKO ADIKZIOEN alorrean. Bi dira bereziki jorratu nahi ditugun portaerak: jokoa eta erosketak.

Hauek dira ikusi nahi ditugun lege alderdiak:

- Jokoaren Araudia Euskal Autonomia Erkidegoan
- Legezko ezgaitasuna
- Delituak

Jokoaren Araudiari dagokionez Debekuak aipatu nahi ditugu batez ere, hala apustu-jokoetan parte hartzearekin lotutakoak, nola jokorako sarbidearekin lotutakoak. Legeak adinez txikikoak, jokorako sarbidearen erregistroko debekuen erregistroan barneratzen diren pertsonak, jokoarekin arazoak dituzten pertsonak nahiz epai judizial bidez ezgaitasuna aitortua duten pertsonak babesten ditu.

Legezko ezgaitasunari dagokionez, Beroa Babes Fundazioko zuzendaria den Monica Fernandez Borobio elkarrizketatu dugu. Elkarrizketa horretan legezko ezgaitasunarekin lotutako zenbait alderdiri buruzko azalpenak eman dizkigu eta ezgaitasun horiek noiz eska daitezkeen azaldu digu. Horrez gain, pertsonalki edo ondareari dagokionez jarduteko gaitasunean zailtasunak dituzten pertsonak babesteko aukera ezberdinak aipatu dizkigu.

Ludopatak diruarekin duen kontrolik eza zarrastelkeria-portaerekin dago lotuta. Portaera horren ezaugarri nagusiak dira gastu gehiegizko eta neurrigabea (elementu kuantitatiboa) egitea, gastu alferrikako eta justifikatu ezina (elementu kualitatiboa) egitea eta gastu hori ohikoa (elementu kronologikoa) izatea (Esbec eta Delgado, 1998).

Ludopatia delitu jakin batzuekin egon daiteke lotuta:

- Ondarearen aurkako delituak: Iruzurra, Ebasketak/Lapurretak, Faltsifikazioa, Bidegabeko Jabetza, Ondasun Publikoen Bidegabeko Eralgitzea, Estortsioa.

- Indarkeriazko portaerak: Erasoak pertsonei, Kalteak (objektuak suntsitzea).

Bi emakumeren lekukotzak jaso ditugu. Batek jokorako adikzioa dauka eta besteak erosketak egitekoa. Biek azaldu digutenez, adikziozko portaeraren ondorioz delitu bat egin dute eta orain juridikoki erantzun beharko dute. Gai horri buruz pentsatzen dutena adierazi digute eta arazoaz jabetzeko zer-nolako eragina izan duen aipatu digute.

ANA HERREZUELO
ASAJER ELKARTEKO PSIKOLOGOA

www.asajer.org
25 aniversario urteurrena 1989-2014

Abendua 2016

ERREHABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Jokoaren Araudi Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Estatutuko 10.35. artikuluak kasino, joko eta apustuen arloan, Kirol eta Ongintzako Apustu Mutuak salbuetsita, ematen duen eskumenaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Lege eman zen, Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak eta lege jakin batzuk Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko barne-merkatuko zerbitzuei buruzko apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatua.

Lege horretan jokoaren jarduera jorratzen da modu orokor eta sistematikoan, jarduera horiek antolatzeko oinarrizko arau zenbait finkatuz.

Hainbat aldaketa egin dira merkatuaren bilakaerara, aldaketa teknologikoetara edo jokorako lokaletan garatzen den presentziazko bidearen osagarri diren jokorako bide berrien agerpenera egokitzeko.

Era berean, araudian Adikzioei eta droga-mendekotasunari arreta integrala emateko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 50. artikuluan, joko problematikoarekin edo joko patologikoarekin lotutako egoerak prebenitzeko, barneratzen diren neurriak garatu eta bultzatu nahi dira.

16. artikuluan jokoan parte hartzeko Debekua jasotzen da. Araudi horretan babesten dira adinez txikiko pertsonak, legez desgaitutako pertsonak, debekuen zerrendan barneratzen diren pertsonak eta jokoaren ordena, lasaitasuna eta jokoan aritzea oztopatzen duten pertsonak. Adinez txikikoei dagokienez, «AR» erako makinen erabilera salbuesten da.

17. artikuluan jokorako lokaletara eta web-orrialdeetara sartzeko Debekua jasotzen da. Ez zaie baimenduko jokorako lokaletara sartzea honakoei: Adinez txikiko pertsonei kasino, bingo-areto, joko-areto eta apusturako lokalen kasuan; mozkorrik egotearen edo substantzia psikotropikoen eraginpean egotearen zantzuak dituzten pertsonei, edo jokoaren ordena, lasaitasuna eta jokoan aritzea eragotz dezakeen portaera oldarkor edo erasokorra duten pertsonei; Jokorako Sarbidearen Interdikzioen Erregistroen barneratzen diren pertsonei sartzeko kontrol-sistemak aplikatu behar diren jokorako lokaletan.

Ez zaie baimenduko jokatzeko debekupean dauden pertsonei web-orrialdeetan jokalari modura kontua ireki eta erregistratzea aurreko artikuluaren arabera. Adinez txikiko pertsonei sartzeko debekua argi eta ikusteko moduan paratu beharko da lokalaren sarreran eta web-orrialdearen atarian, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan adierazita.

18. artikuluan Jokorako sarbidearen Interdikzioen Erregistroa jasotzen da. Erregistro hori ezartzearen helburua da bertan agertzen diren pertsonak sartzeko kontrol-sistemak aplikatzen dituzten jokorako lokaletara edo bitarteko elektroniko, informatiko, telematiko eta interaktiboak erabiliz jokorako webgunetara sar daitezela ekiditea. Jokoa Arautzen duen Agintaritzak jokoaren interdikzioen erregistro horretan inskribatuko ditu: Berariaz jokorako sarbidea debekatzea eskatu duten pertsonak; jokorako adikzio patologikoa duten pertsonak, bidezko interesez hirugarren batek eskatuta; Epai judizial irmoz desgaitu edo zarrastel modura deklaratutako pertsonak eta, hala badagokio, desgaitasunaren edo zarrasteltasun prozeduraren barnean jokorako jardueretara sarrera mugatzeari buruz hartutako behin-behineko neurrien eraginpean dauden pertsonak, neurriaren indarraldian zehar; Epai judizial irmoz, nagusiki edo osagarri modura, jokorako sarbidea mugatuta duten pertsonak eta, hala badagokio, dagokion prozeduraren barnean jokorako jardueretara sarrera mugatzeari buruz hartutako behin-behineko neurrien eraginpean dauden pertsonak, neurriaren indarraldian zehar; jokoaren araudi honetan larri edo oso larritzat adierazten diren arau-hausteen ondorioz zigortutako pertsonak; jokoan erakutsitako portaera kontuan hartuz jokoaz arduratzen diren enpresek eskatutako pertsonak.

Monica Fernandez Borobio - Beroa Babes Fundazioa

Monica Fernandez Borobio

Zuzendaria

Budapest Hiribidea 29, behea
01003 Gasteiz
Tel. 945 21 43 63

www.fundaciontutelarberoa.com

Zer da Beroa Babes Fundazioa eta nola sortu zen?

Irabazi asmorik gabeko erakundea da, berezko izaera juridikoa duena, eta bere helburua betetzeko jarduteko gaitasun osoa duena. Eusko Jaurlaritzaren protektoratuan F16 erregistro-zenbakia dauka eta bere IFZ zenbakia G-01231398 da.

Araban buruko gaixotasunak dituzten pertsonei zuzendutako Beroa Babes Fundazioa Arabako Gaixotasun Mentala dutenen eta haien Senideen Arabako Elkartearen (ASAFES) barnean sortu zen eta 1995eko azaroaren 15ean eratu zen notario aurrean.

Zein dira bere helburuak?

Bere lehentasuna Arabako Lurralde Historikoko adinez nagusiko pertsonen babesa da, epai judizial bidez aldatutako jarduteko gaitasuna dutenak eta Beroa Babes Fundazioak babesten dituenak.

Hogei urte baino gehiago daramatzagu lanean ildo horretan eta egokitzat jotzen ditugun esku-hartzeak garatzen ditugu jarduteko gaitasuna aldatuta duten pertsonei babes pertsonal edota ondare arlokoa eraginkortasunez emateko helburu bakarrarekin, pertsona desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 12.4. 5 artikuluan eskatzen den moduan.

Zer-nolako gaixotasunek justifika dezakete gaitasun aldaketa bat?

Desgaitasun judiziala deklaratu ahal izateko ezinbestekoa da norberak bere burua gobernatzea ekiditen dion izaera fisiko edo psikikoko gaixotasun edo urritasun iraunkor bat izatea.

“Ezgaiketa-arrazoiak dira norberari bere burua gobernatzea galarazten dioten gaixotasun edo akats iraunkorrak, fisikoak izan nahiz psikikoak izan” Kode Zibileko 200. artikulua.

Nork eska dezake?

Hura eskatzeko ahalmena dute eragindako pertsonak, ezkontide edo izatezko bikoteak, ondorengoak (semealabak edo bilobak), aurrekoak (gurasoak edo aitonamonak) edo babes-neurriren bat behar dezakeen pertsonaren anai-arrebak.

Aurrez aipatutako pertsonarik ez balego, edo horiek eskatuko ez balute, Ministerio Fiskalak bultzatu beharko du. Fiskalak esku hartu ahal izateko balizko desgaitasun-egoeraren bat dagoela jakin behar du.

Nola jakin dezake?

Duten kargua dela medio kausaren bat dagoela jakin dezaketen agintari edo funtzionario publikoek horren berri emateko betebeharra dute. Kasua ezagutzen duen edozein pertsonak ere eman dezake egoeraren berri.

Nola zehazten da pertsona baten desgaitasuna?

Desgaitasuna adierazten duen epai judizialean zehazten da eta epai horretan desgaitasunaren deklarazioa zilegi den ala ez, zenbatekoa den (erabatekoa edo partziala) eta dituen mugak zehaztu behar dira. Epai horretan, era berean, erregimena eta babes edo kuradoretza izaera adierazi beharko da, eta tutore edo kuradorearen izendapena ere zehaztu beharko da.

Berariaz adierazi beharko da sufragio-eskubidea eta testamentua egiteko eskubidea dagozkion ala ez. Jakinarazten bazaigu, egin ahal izango du. Soilik testamentua egin nahi bada, Notarioak txostena eskatuko die desgaitasuna aitortzen duten bi osagileri, testamendua egiteko ahalmenari buruzko txostena eman dezaten.

Zertan datza gaitasuna aldatzeko prozedura?

Jarduteko gaitasuna aldatzeko prozeduraren helburua pertsonaren gaitasunak mailakatzea da, babes-neurriren bat ezartzea beharrezkoa den ala ez egiaztatzeko. Adin nagusiko orok jarduteko gaitasuna dugula ondorioztatzen da. Hori dela eta, beharrezkoa da gaitasun horretan mugaren bat dagoen ala ez zehazten duen epai bat ematen duen prozedura judizial bat jarraitzea.

Zer da babesa?

Zaintza eta babeserako instituzio bat da, zeinaren bidez beste pertsonaren legezko ordezkaritza ematen zaion tutoreari. Tutorea da pertsonaren legezko ordezkaria epaian zehaztutako ekintzei dagokienez. Babesa erabatekoa edo partziala izan daiteke. Erabatekoa da pertsona bera eta bere ondarea hartzen baditu. Babesa partziala da alderdi jakin batzuk hartzen baditu soilik.

Derrigorrezkoa da tutore kargua?

Ez da derrigorrezkoa tutore kargua onartzea hartara deitutako pertsonentzat. Badira babesaren zeregina salbuetsi dezaketen inguruabar zenbait. Nagusienak adina, gaixotasuna, lanbidea edo loturarik eza dira, edo kargua betetzea bereziki garestia izatea. Salbuespen horiek aintzat har daitezke izendapenean edo ondoren, eta kargua uzteko aukera izango da.

Nor ez daiteke tutore izenda?

Kode Zibilaren 243., 244. eta 245. artikuluetan adierazten diren egoeretako batean dauden pertsona fisikoak ezingo dira tutore izendatu.

Zein dira tutorearen betebeharrak?

Tutorea tutoretzapeko pertsona zaintzera derrigorturik dago. Elikadura eta prestakuntza ahalbidetu behar dizkio eta bere gaitasunak berreskuratzeko bitartekoak eman. Halaber, tutoreak arduraz kudeatu behar ditu haren ondareak. Bestalde, ekintza jakin batzuk burutzeko, Kode Zibilaren 317. eta 272. artikuluetan jasotakoak, ezinbestekoa da tutoreak baimen judiziala izatea.

Nork gainbegiratzeko du tutoretza?

Tutorearen kargua Epaileak eta Ministerio Fiskalak kontrolatzen dute. Tutoreak tutoretzapeko pertsonaren ondare eta eskubideen inbentarioa egin behar du derrigorrez. Gainera, urtero haren egoera pertsonalari eta ondareei buruzko txosten bat aurkeztu behar du eta bere funtzioak bertan behar uzten dituenean kontuak eman behar ditu egoera justifikatuz. Ministerio Fiskalak, edozein unetan, tutoretzapeko pertsonaren egoerari eta horniduraren egoerari buruzko txostena eskatu ahal dio tutoreari.

Noiz amaitzen da tutoretza?

Tutoretza tutoretzapeko pertsona hiltzean, hala adierazten duen epai bidez pertsonak jarduteko gaitasuna berreskuratzen duenean edo tutoretzaren ordez kuradoretza ezartzen duen epaia ematen denean (epaia aldatzean) amaitzen da. Tutore izateari uzten dion pertsonak kontuak eman behar ditu egoera justifikatuz Epailearen aurrean. Horretarako 3 hilabeteko epea izango du.

Zer da kuradoretza?

Kuradoretza beste babes irudi bat da, tutoretzaz apartekoa. Tutoretzan tutorea da tutoretzapeko pertsonaren legezko ordezkaria eta kuradoretzan kuradoreak betetzen du kuradoretzapeko pertsonaren jarduteko gaitasuna.

Kuradoreak kuradoretzapeko pertsonari lagundu ahal dio soilik epaiak berariaz zehaztutako alderdietan. Epaia ondarezko ekintzei edo ekintza pertsonalei buruzkoa izan daiteke.

Zer da egitatezko zaintza?

Egitatezko zaintzailea da, epaileak tutore edo kuradore izendatu gabe, bere jarduteko gaitasuna zalantzazkoa duen pertsona babesteko funtzioak betetzen dituena. Zalantza hori, nagusiki, adinagatik edo gaixotasunagatik sor daiteke.

Zer da auto-tutoretza?

Edozein pertsonak dauka aukera bere tutore edo kuradorea hautatzeko judizialki desgaitua dela aitortzen bazaio. Nahi hori gauza dadin dokumentu publiko bat bete behar da notario aurrean. Dokumentu horretan, era berean, pertsonari edo ondareei buruzko alderdiak aipa daitezke. Ondoren Notarioak Erregistro Zibilari helaraziko dio jaiotza-inskripzioan ager dadin.

Zein egoeratan kudeatzen du desgaitasuna fundazioak familiak kudeatu beharrean?

Kode zibilaren 234. artikuluan tutorea izendatzeko lehentasun-hurrenkera ezartzen da. Hurrenkera hori epaileak alda dezake ebazpen ziodun bidez.

Pertsona juridikoak ere tutore izan daitezke, Beroa Babes Fundazioa kasu. Kasu horretan bi betekizun bete behar dira; irabazi asmorik ez izatea eta helburuen artean adinez txikikoen edo desgaituen babesa agertzea.

Fundazioak oso kasu jakinetan arduratuko dira tutoretzaz eta horretarako alternatiba egokiena dela irizten denean.

Zer-nola agertzen dira desgaitasun juridikoaren alorrean portaerazko menpekotasunak, esate baterako, ludopatia eta Erosketarako adikzioa?

Iraunkorra izan daitekeen gaixotasun modura agertzen dira, eta zenbaitetan eragindako pertsonak bere burua gobernatzea ekiditen duten gaixotasun modura, hirugarren pertsona baten laguntza beharrezkoa izanik.

Behin adikzioarekin lotutako arazoak direla medio pertsona bati desgaitasuna aitortzean, desgaitasuna kendu ahal zaio? Hala bada, zein izango litzateke prozesua?

Desgaitasuna edozein delarik ere, gaitasuna berreskuratu egin daiteke. Egoera berriak emango balira edo bere garaian desgaitasunaren deklarazioa eragin zuten egoerak desagertuko balira, prozedura judizial berria abia daiteke. Prozedura berrian gaitasuna osorik berreskura daitekeen balioetsiko da, aurreko epaia eraginik gabe utziz, eta pertsonak bere burua eta bere ondareak gobernatzeko gaitasun erabatekoa duela deklaratuz. Gaitasuna berreskuratzeko prozesua gaitasuna aldatzeko prozesuaren antzekoa da.

www.asajer.org
25 aniversario urteurrena 1989-2014

Abendua 2016
ERREHABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

beroa
FUNDACIÓN TUTELAR / BABES FUNDAZIOA

arazoa duen
pertsona bat

LEKUKOTZAK - ADIKZIOA ETA DELITUA

Laura 40 urteko emakumea da, banandua dago eta 10 urteko semea dauka. Erosketetarako adikzioa dauka

Erosketekin izan duzun portaeraren ondorioz lege izaerako arazorik izan duzu? Hala bada, zehaztu dezakezu arazoa.

Erosketekin eta neurrigabeko gastuarekin izan nuen arazoa egunez egunekoan gaindiezinak ziren zor larri batzuen ondorioz etorri zen. Besteen dirua hartzen duzu zor horiek estaltzeko eta familiak ezer jakin ez dezan.

Zure kasuan, lege arloko arazo horien ondorioz arazoaz jabetu zara edo arazo horretaz jabetzea eragotzi dizute?

Adikzio honetako eta beste adikzio mota batzuetako legezko arazoak izaten dira lagunak eta familiak jakinaren gainean jartzen dituztenak, aurrez horren gaineko ezagutzarik ez zutelarik. Legezko arazoen ondorioz arazoak atzera bueltarik gabeko dimentsioa hartzen du. Gainerako bideak agortzean hartzen duzun azken alternatiba da. Legezko arazo horien ondorioek ikusarazten dizute errealitatea eta sekula aitortzen ez zenuen arazoa aitortzen duzu ezinbestean.

Esparru ekonomikoari dagokionez, erosketetarako adikzioak izan al du eraginik dirua kudeatu eta kontrolatzeko zure gaitasunean?

Erabat, diruaren balioa galtzen da eta gero eta gehiago xahutzeko beharra duzu zure premia asetzeko. Bestalde, premia hori sekula ez da asetzen, izan ere, zure erresistentzia gero eta ahulagoa da eta, ondorioz, zorra gero eta handiagoa.

Zure ustez zer-nola jorratzen da adikzio mota hau esparru juridikoan?

Legearen esparruan, kontzientzia-mailari buruz auzitegiek egindako balorazioak erabakigarriak izaten dira. Dena den, ez dira baiezko batekin edo ezezko batekin erantzuten diren kontuak. Kontzientzia-maila, neurri handi edo txikiagoan, hor dago. Adikzioaren gaixotasunak ahultzen duena bulkada kontrolatzeko gaitasuna da.

Zein egoeratan daude gaur egun zure legezko arazoak?

Gaur egun, legezko nire arazoak ebazpenaren zain daude.

www.asajer.org 25 aniversario urteurrena 1989-2014

Abendua 2016

ERREHABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

arazoa duen
pertsona bat

LEKUKOTZAK - ADIKZIOA ETA DELITUA

Silvia 50 urteko emakumea da, dibortziatua, eta 21 urteko alaba bat dauka. Jokorako adikzioa du.

Jokoarekin izan duzun portaeraren ondorioz lege izaerako arazorik izan duzu? Hala bada, zehaztu dezakezu arazoa.

Bai. Jokoarekin izan dudan portaeraren ondorioz nire Auzotarren Komunitateak salaketa jarri dit komunitateko kontutik 10.000 € hartzeagatik. Epaiketa penalaren zain nago.

Zure kasuan, lege arloko arazo horien ondorioz arazoaz jabetu zara edo arazo horretaz jabetzea eragotzi dizute?

Bai. Arazoaz jabetzeko lagungarri izan dira. Haatik, jokoa ez dut kontrolatzen oraindik, eta horrek jokoa alboratzea zailtzen dit.

Esparru ekonomikoari dagokionez, jokorako adikzioak izan al du eraginik dirua kudeatu eta kontrolatzeko zure gaitasunean?

Bai. Asko eragiten dit. Diruak ez du liparrik irauten nire eskuetan.

Zure ustez zer-nola jorratzen da adikzio mota hau esparru juridikoan?

Ez dakit. Uste dut gaixotasun modura hartzen dela, baina ez dakit.

Zein egoeratan daude gaur egun zure legezko arazoak?

Gaur egun nire legezko arazoak aurrera doaz. Epaiketaren zain nago.

www.asajer.org
25 aniversario urteurrena 1989-2014

Abendua 2016

ERREHABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA